

## 1990eko euskal liburugintza (2)

JOAN MARI TORREALDAI



**TITULUEN** kopuruari begiratu ohi zaio lehenik liburugintzaren edozein azterketatan. Eta normala da. Normala ez dena zera da, hori bakarrik kontutan hartzea liburugintzaren osasuna detektatzeko. Beste faktore asko ere badira aintzat hartzekoak. Horietako bat, tirada, zenbait ale ateratzen den, alegia. Garrantzi handia du tiradak, salmentak, liburu baten eraginkortasuna adierazten bait du, demografia irakurle errealaren tamaina. Tirada aldetik, Euskal Herrian, gerakuntza batean gaudela iruditzen zait. Fotokomposizio —eta almanazeje— arazoien-gatik gehitu dela berragiritarapena eta gutxitu tiraldi bakoitzeko aleak, ez dut uste aski arrazoi denik. Merkatu berririk ez da azaltzen, ez da bilatzen, ez da sortarazten. Irakurle berriak apenas hurbiltzen diren liburueta, irakaskuntzakoak kenduta. Ez dut uste liburuen tiradak azken bost urteotan gora egin duenik. Euskal liburu baten ale-kopuruari alenak nekez gaintzen zuela 5.000 aleko muga eta botaldi ertaina 3.000 alekoa zela esan ohi zen duela bost urte idatzita dago. Gaur ere horrela ote da? Ez dakit. Iazko liburu berrien tiradak (argitarapenak aparte) ezagutzeko parada izan du. Mostra bat ateratu. Ez zaizkit zifra horiek ateratzen. Begira ditzagan titulu gehien biltzen dituzten sailak. Nik ditudan datuetatik, haur eta gazteen literaturan batzabesteko tirada 2.865 aletakoa da. Nahikoa hurbildik jarraitzen zaio irakaskuntz liburu. 2.764 ale batzabeste atezaz. Baina helduen literaturan botaldi ertaina: nobela txikiagoa da, mila bat ale txikiagoa; nobela 2.078 ale; ipunetan 1.635 ale; eta tirada txikiagoa da olerkia; 1.500 ale. Hauxe al dira egiazko zifra eta kopuruak? Argitaratzaileek dute hitza.

## ● EL CORREO ESPAÑOL

### Udal Kalentura

Txanponaren beste alde EA da. Garaikoetxeak atzo ziurtatu zuen bere alderdiko zinegotziek agindua dutela botoa soilik bere zerrrendakoei emateko. Erabakiak esan nahi du HBrekin pakturik ez egitea, baina Ajuria Eneako paktuko blokeak osatzen duten beste alderdietatik desmarkatzea. Euskal Herriko bizitza politikoan gutzit bere erara joatearen neurriak oraindik gehiago baztertu dezake Garaikoetxearen alderdia. Gipuzkoan, dena den, EAJk prezio altuegia ordaindu du, hauteskunde ondorengo bere helburuak lortzeko. Eta horretan onuraren Eusko Alkartasuna ateratu da. Udal batzuk gaur udal kalentura handiarekin eratu dira.


RAMON MUR / 1991-VI-15

## ● EL MUNDO

### Imajina zitekeen baino harantzago joan dira

Gizarte errealitatea eta jarritako egitura burokratikoaren arteko kontraesan oso nabaria da Donostiako Udalean. Zaila da argudio bakarra bilatzea justifikatzeko, Donostiako alkatea hirugarren pos-

## H E M E R O T E K A



PERIDIS / EL PAIS / 91-VI-15

tuan geratutako alderdikoa dela eta lehen alkateordea Udalerri horretako laugarren indar politikokoa. Kontraesanakoa da ere, bi horiek Estatuko alderdiak izatea, kontutan izanik herri horretan gehiengo nazionalista nabariagoa dela.

DAVID BARBERO / 1991-VI-15

## ● DEIA

### Laupolaritatea helburu eta errealtatetzat

EA eta EEren goibeltasun instituzionalak identitate krisia areagotu eta azkartu dezake, jadanik ez bait daude ezkutuan. Oso posible da EEko Añuamendi sektorea bere kontura funtzionatzen hasia —ja-

danik hasi ez bada— eta alderdi sozialdemokrata abertzalearen proiektua berpiztea. Ez da oso probalea EAKo sektore esanguratsuak alderdi horretaz interesatzea, eta ezta masen partidubihurtzea, HBtik hurbil dauden sektoreekin lehiatu gabe. Baina zerbait egin behar dute, zerbait desberdina eta epe erdira badirudi prest daudela ahaleginak egiteko.

SHANTI LARRAÑAGA / 1991-VI-15

## ● EL DIARIO VASCO

### Desmarke bateko klabeak

Herri Batasunaren isolamendu politikoa frogatzea zuzendu operazioa pixka bat gainbehera joan da, kontutan izanda, aurrikusita dagoela EAK gain bere alderdiaren aldeko botoarekin erantzungo duela; adierazpen emozional hori ulegarria da gizatuzunaren aldetik

ALBERTO SURIO / 1991-VI-15

## Burokraziaren burugabekeria

J. VELEZ DE MENDIZABAL



**JAINKOAK** libra gaitzala burokrazia eta gaitasunik ezatik. Jainkoa, diot, guri gizakioi ezina bait zaigu, sarrri, arazorik txikienei ere itrenbide logikoa ematea. Hori, noski, giza erabakien atzean goigintekeria eta harrokeria ere egon daitezkeela ahaztu gabe. Eta kulturarik ez. Arabako «Garraio eta Lan Publikoak» sailak, zenbait herritako sarrera eta itereetan diren izen-kartel zaharrak kendu eta berriak ezartzeari ekin zion Ekintza erraz eta korapilorik gabea izan beharko zukeena, infernuko abentura bilakatu da. Dardarean ipin daiteke edonor, pasadizo xume honetatik ondoriotu dena ikusita zerbait larrago gertatuz gero zertaraino ailega gintzeko pentsatzen. Hurbilenetik ezagutzen dudana azalduko dizuet. Ullibarri Ganboa izenaren ordez Urribarri jarri dute karteletan. Horiek ezarten ari zirenei azaldu zieten herri agintariak hutsaren izana. Alperrik, langileak aginduak betetzen ari bait ziren. Hurrengo goizean, foru-lehiatilan: «zerk uste arazten dizue gaizki dagoela?... Horrela daude idatzita eta orain ez dago kenterik?... Ze diferentzia ote Ulli eta Uri artean?... Alde, alde gauza serioagorik badugu eta ...». Biharamonean, herri agintariak amerorik eman gura eta etostehun urtetako historia dokumentatua eskutan daramatela, berriz ere lehiatilan: «Ez al duzue denbora beste ezertan pasatzerik?» Orain, herriedeek instantzia bat bete eta Foru Ahaldundira aurkeztu nahi dute. Hautetskundeak direla eta, aldaketarik balego, agian izenarena ere aldatu ahal izango litzateke. Dena den, Xabier Mendiagak oroitzen zien bezala, kasu hauetan espraia ei da aldarrazlerik iaioena.

## ZUZENDARIARI

### Araba Euskaraz

Urte osoan euskararen inguruan ekitaldi ugari antolatzen da: Araba Euskaraz, Herri Urrats, AEKantuz, Kilometroak, Nafarroa Oinez, Korrika, Ibilaldia, AEKantada... Euskarak, ordea, ekitaldi isolatu horietaz gain, eguneroko lana exigitzen du. Alferrik da hainbat eta hainbat egun euskararen alde ospatzea, eguneroko lanean eta borrokan alde batera uzten badugu. Ondo daude euskararen aldeko ekitaldi guzti horiek, baldin eta gure eguneroko lanean kokatzen baditugu.

Euskal Herrian Euskaraz erakundeak behin eta berrito aldarrikatu nahi du euskararen borroka ez dela horrelako ekitaldietara bakarrik mugatu gabe. Aldiz, euskarak eguneroko tresna bilakatu behar du gure bizitzako alor guztietan: eskolan, kalean, lanean, lagunartean... zentzu horretan bakarrik izango bait da posible benetako garapena.

Guzti horrekin batera, euskal eskola nazionalaren premia eta beharra aldarrikatzen du, euskara hizkuntza nazionalaren eta euskal es-

kola nazionalaren asmo eta helburuak batera bait doaz. Bide horretan ikastolen mugimenduak zeresan handia du, bere sorreratik euskararen defentsarako eta berreskurapenerako herri-mugimenduen erabat loturik egon bait da.

GORKA RODRIGUEZ (EHE)GASTEIZ

### Uribe-kosta korredorea: utziezinezkoa?

Badira urte batzuk Bizkaiako Foru Aldundiak Uribe-Kosta eskualdean, La Avanzadako luze baten ondoren ia erabat amaituriko estudio bat aurkeztu digutenetik, non korredore horren «utziezinezko» beharra erakusten den.

Arestian antolaturiko «Korredoreari buruzko eztabaidarako mahaia» ondoko

puntu hauek salatu nahi ditu:

- Erabakizun hau beste alternatibekin kontrastaturik gabe dago.
- Ingurugiroari izugarritzko kalteak eragiten dizkio.
- Eskualdeko auzokide eta taldeen iritziaz ez dira kontutan hartu.
- Arazoa bakoitzak bere aldetik aztertzen duenez gero, ez dira EEEn ematen dituen arauak betetzen (ez dira garraio publikoak eta pribatuak elkartzeko...)
- Metroa ez du kontutan hartu, zeren, nola saldu daiteke autopista eta metroaren ideia erabaterata?
- Guzti horregatik, eskualdearen bizitza kalitatea hobetzeko eta ez bakarrik bizitza maila, eta bere etorkizuneko egoeraren garapena aldeezinezkoa izan ez dadin, dirudienek ukatzen omen ditugun eztabaidan, auzokide guztiei parte hartzea deitzen diegu. (EEEn gomendio orokorren barruan eztabaidatzea beharrezkoa da).

KORREDOREARI  
BURUZKO  
EZTABAIDARAKO  
MAHAIA  
URIBE-KOSTA

## PERTSONAIA



### Odon Elorza

Gaur bertan hartzeko duzu alkatetza euskara jakin ezak zu ez zaitu lotsa ardi larruz jantzita zatotz otso beltza amorrut estaliak bihotza nahiz hortza Aberrian etsaitzat zaitugu Elortza.

JOSU ZELAIA

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria:

MARTIN UGALDE

Zuzendaria:

PELLO ZUBIRIA

Kontseilu Editorialeko Lehendakaria:

JOAN MARI TORREALDAI

Zuzendariordeak:

NEREA AZURMENDI  
LUZIEZ ETXEZAHARRRETA  
INAKI URIA

Kontseilari Ordezkaria:

JOXE MIEL ZUMALABE

Publikizatea:

KORNELIO ROTETA

Gerentea:

INMA GOMILA

Egunkaria

Batzorde Parekidea: 72564 E  
Lege Goidialua: SS 800/90

### HELBIDEAK

Egoitza soziala, Pulizitatea eta Administrazioa: Antso Jakituna, 16-1 / 20.010 Donostia / ☎ 46 90 22 / Faxa: 45 59 57

Erredakzio eta Taltarra: ANTZA S.A. Industrialdea 01-02 Pabilioak / 20.160 Lasarte-Oria / ☎ 37 15 45 / Faxa: 36 54 93

Araba: San Antonio, 20-1. ezker. / 01005 Gasteiz / ☎ 23 38 72 / Faxa: 23 38 73

Nafarroa: Iratxe Monastegia, 45-13. esk. (Irritzin dorrea) / 31011 Iruñea / ☎ 17 80 78 / 79 / Faxa: 17 80 77

Bizkaia: Barroeta Aldamar, 2-1. eskuma. / 48002 Bilbo / ☎ 423 90 62 / Faxa: 423 94 60

Lapuri / Nafarroa Behera / Zuberoa: 2, Galuperia kaia. / 64100 Baiona / ☎ 59 59 35 75 / Faxa: 59 25 75 11